

ANGELUKO JATETXEAN FRANTZIAKO MILLAU HERRIKO GERTAKIZUNEKIN ELKARTASUNA ADIERAZI ZUTEN

Multinazionalen kontrako zikiroa egin zuen atzo ELBk McDonald'sen

■ Angeluko McDonald's jatetxearen aitzinean protestaldia antolatu zuen atzo ELB nekazarien sindikatuak

■ Frantziako Millau herrian Confederation Paysanneko kideek jasandako atxilotetak salatu zituzten

■ EHNE, Berdeak, CADE eta AC! sindikatu eta alderdietako kideekin batera mundializazioa arbuiatu zuten

Hur Gorostiaga / Angelu

MCDONALD'S jatetxearen kanpoko mahai eta aulkiak, Euskal Herriko Laborarien Batasuneko zikiroaren koka-leku bilakatu ziren atzo eguerdian. Sindikatuko 100 bat kide, EHNE Hegoaldeko laborarien elkartearekin batera eta Iparraldeko Berdeak, CADE ingurugiroaren aldeko batasunak, AC! langabetuen elkarteak eta Terre des Homes heren munduko herrien garapenaren aldeko eskubideen defendatzaile den elkarteko kideek bat egin zuten ekimenean. Ekimena liskarrik gabe gertatu zen.

Batetik, abuztuaren 12an Frantziako Millau herrian Confederation Paysanne sindikatuko kideek «jasandako errepresio poliziala» salatu zuten, McDonald's jatetxe berri baten eraikuntza lanen aurkako ekimena burutzea-gatik. Izan ere Estatu Batuek haragi hormonatua Europako merkatuan sartzeko eze-tza jaso ondoren, Euro-patik heldu ziren hainbat elikagairi zerga bikoiztu diete. Besteak beste, Roquefort gasnak jasan du prezio upatze hori.

Gisa horretan «une berean Roqueforta egiten den eskualdean McDonald's jate-txea eraikitzea probokazioa» dela azaldu eta ELB kide den Confederation Paysanneko partaideek protestaldia egin izana «logikotzat» jo zuten. Euskal laborariek erabateko elkartasuna adierazi zioten ekimenari, eta ekimen horre-gatik preso dagoen Jose Bove sindikalistari.

Bestetik, ekimen horrekin bat eginez, McDonald's etxea «mundializazio eta araurik gabeko merkatu librearen sinboloaren aurkako ekintza» izan zen Christian Harluxet ELBko eledunak azaldu zue-nez. «Laborantza industrial eta ustiatzailearen aitzinean, euskal laborariok kalitatezko laborantza, tokian lanpos-tuak atxikiko dituen laboran-tza eta bizi ahalmenen bana-keta eskaintzen duen labo-



EHNEko Paul Nicholson eta ELBko Christian Harluxet atzoko ekitaldian. Behean, Jose Bove atxilotuta dagoen sindikalista historiko frantziarra.

rantza bultzatzen dugu», adierazi zuen Harluxet.

Big Beñat-en defentsa

Big Beñat ogitartekoaren defentsa egiteko unea izan zen ere. Baionako xingarrare-kin eta tokiko gasnarekin egi-niko ogitartekoaren promo-zioa justuki Angeluko McDo-nald's jatetxea egin zelarik sortu zen, tokiko harakinek bultzaturik.

AC! langabetuen elkarteko kideek, erabateko elkartasu-na adierazi zioten ELBren ekintzari, eta bide batez Mc-Donald'sek «langile gazteak ustiatzen» dituela salatu zuen. «Halako jatetxe batek enplegu finkoa ekar lezake arazorik gabe. Horren ordez, kontratu motzak egiten dituz-te, gaizki ordainduak eta segi-darrik ez dutenak izaten», sa-latu zuen Michel Bernadetek.

Jean Lissar Berdeen eskualde kontseilariak, berriz, Confederation Pay-sanneko kideek jasandako errepresioa eta Dominique Voynet ministro berdeak jasandako erasoan inor ez auziperatu izana konparatu zituen.



GERARD JULIEN / EPA

EHNE eta ELB bat eginik

■ EUSKAL HERRIKO LABO-RARIEN BATASUNAREN eta Euskal Herriko Neka-zarien Elkartearen arteko ekimen bateratuak geroz eta sarriagotan ageri dira. Atzo, Hegoaldeko sindika-tuaren hainbat ordezkari hurbildu ziren Angelura, Marta Agirrezabala, Mikel Petrirena eta Paul Nichol-son buruzagiak, besteak beste. Azken honek bi el-karteen arteko elkarlana sakontzeko xedea agertu zuen, halako ekimen bate-

ratuak usuago egin daite-zen. Nicholsonen «mundu osoan baserritarrek jasa-ten duten errepresioa» sa-latu zuen, eta mundializa-zioaren aitzinean nekaza-riek beren eskubideak defendatzeko ekimenak «gizartearen eskubide» di-rela aldarrikatu zuen. Gi-sa horretan, McDonald's gisako etxeak, «elikadura-tik hasi eta bizimodua era-bat aldatzeko asmoa duen politikari» jarraiki direla azpimarratu zuen.

Jose Bove aske jartzea edo ez etzi trenkatuko da

Allande Sokarros / Baiona

EHUNDAKA laborari kale-ra eraitsi zen atzo Fran-tziako hainbat hiritan, Confederation Paysanne-ko Jose Bove sindikalista buruaren aske jartzea eskatzeko. Manifestaldiak izan ziren Annecy, Berge-rac, Bordele, Chambéry, Grenoble, Millau eta Pari-sen zein ere Montpellie-rrin, bertako auzitegien epaitzen baitzen Jose Boveren kasua. Confede-ration Paysanne ezkerreko sindikatuaren sortzaile hau iragan agorrilaren 19az geroztik giltzapetua da, egun zenbait lehenago Millauko McDonald's jate-txearen aurka izandako ekintza baten erantzuki-zuna egotzia izan baitzaio.

Hilaren 19tik atxilotuta

Iragan agorrilaren 12an, Confederation Paysanne-ko dozenaka laborarik Millaun eraikitzen hasia den MacDonald's jatetxea barreiatu zuten eta puska-kin batzuk Prefetura aitzina-nera eraman zituzten. Ekintza honen bitartez, ekonomia-aren mundializa-zioa nahi zuten salatu eta, era berean, EEBBek Euro-pako hainbat mozkinen aurka ezarritako bahikun-tzari iharduki.

Montpellierko dei auzi-tegiaren akusazio ganbe-rak atzo aztertu zuen Bo-veren abokatuak egindako aske jartze eskaria. Mila bat nekazari bildu zen au-zitegi aurrean, laborari sindikalista historiko ho-nen askapena exijitzeko. Hauek atsekabez hartu zuten akusazio ganbera-ren erabakia, hots, epaia-ren trenkatzea etzi jakite-rat ematea. Anartean, Bo-ve preso geratuko da.